

Euskarazko izen arrunten proposamena

Anseriformeentzat

“Munduko hegaztien izendegia” (Iribar et al., 2001)

lanean oinarrituta



**EUSKAL
BATZORDE ORNITOLOGIKOA
COMITÉ ORNITOLÓGICO
DE EUSKADI**

Asier Sarasua, Aitor Galarza, Maite Laso, Aitor Leiza,
Martin Rezola, Edorta Unamuno, Azaitz Unanue, Jon Zubiaur

2024ko irailean

Euskal Batzorde Ornitologikoa

Izen arrunten proposamena Anseriformeentzat

“Munduko hegaztien izendegia” (Iribar et al., 2001) lanaren berrikuspena

XXI. mende hasieran munduko hegazti guztien euskarazko izenak finkatzeko saiakera egin zuen Elhuyarrek. Ahalegin horren lehenengo urratsa izan zen “Munduko hegaztien izendegia - 1 (Anseriformeak, Fenikopteriformeak eta Falkoniformeak)” lana, Amaia Iribarrek koordinatua.

Lan harek, zoritxarrez, ez zuen izan ez jarraipenik, ez behar bezalako oihartzunik. Dokumentu hartan proposatutako izenik gehienak ez dira pasa ez hiztegi nagusietara, ez Wikipediara, ezta Euskaltermera ere, eta euskal txorizaleen artean ere ezezagunak dira gehien-gehienak. Azken urteotako zenbait hedapen-lanetan ere, zoritxarrez, beste izen batzuk erabili dira, seguruenez lan honek izandako oihartzun txikiaren ondorioz, txorizaleen artean nahaste apur bat sortuz.

Euskal Batzorde Ornitologikoak, munduko hegaztien euskarazko izenen zerrenda osatzen ari den honetan, erabaki du Elhuyarrek egindako proposamena onartzea munduko 3 orden horientzat. Horretarako, 2001eko zerrendaren berrikuspena egin du, gaur egungo taxonomiara egokituz eta izen gutxi batzuetan aldaketa txikiren bat proposatu du.

Hemen aurkezten dugun aurreneko txosten honetan une honetan nazioarteko IOC 13.2 zerrendan onartzen diren anseriforme guztien euskarazko izendegia aurkezten dugu (178 espezie, horietako batzuk berriki desagertuta), egungo taxonomia eguneratuarekin. Hurrena etorriko dira Fenikopteriformeak eta Falkoniformeak (gaur egun 2 ordenetan banatuta, falkoniformeak eta akzipitriformeak).

Anseriformeen ordeneko izen generikoak

Anseriformeena hegazti talde zaharretakoa dugu. 178 espezie biltzen ditu, gehien-gehientsuenak urtarrak, 3 familian banatuta, Anhimidae, Anseranatidae eta Anatidae. Orden honetako ia espezie guztiak azkenengo familia horretan sailkatzen dira (Anatidae), 53 generotan bareizita.

Orden honetako euskarazko izenen artean tradizio handiko generiko ezagunak aurkituko ditugu, azken hamarkadetan asmatutako beste zenbait izen generikorekin batera.

Generoak eta izen generikoak aztertuz gero, hauxe da laburpena, nolabaiteko hurrenkera taxonomikoa jarraituz:

- **Oihulariak / txajak:**
 - *Anhima* generoa
- **Mika-antzara:**
 - *Anseranas* generoa
- **Antzarak:**
 - *Anser* genero osoa.
 - *Plectropterus* generoa.
 - Estuki lotuta dauden ondorengo generoak (gehienak Tadorninae azpifamiliakoak): *Cereopsis*, *Cyanochen*, *Alopochen*, *Neochen*, *Chloephaga*.
- **Brantak:**
 - *Branta* generoa, Anser generoarekin estuki lotuta egon arren bere izen generikoa duena.
- **Antzaratxoak**
 - Taxonomikoki antzaren eta ahateen artean kokatuta dagoen *Nettapus* generoa. Inguruko hizkuntzetan ere antzeko izenak erabiltzen dira genero honetako espezieentzat (Pygmy Goose, gansito, anserelle, oca pigmea...).
- **Beltxargak**
 - *Cygnus* eta *Coscoroba* generoak.
- **Paitak**
 - *Tadorna* eta *Radjah* generoak.
- **Ahateak**
 - *Anas* generoko kide gehienak.
 - *Mareca* genero osoa ('ahate txistulariak' barne).
 - *Spatula* generoko 4 espezie mokozabalak ('ahate mokozabal' generikoa daramatenak).
 - Aurreko generoetatik taxonomikoki gertu dauden antzeko hainbat genero txiki (espezie kopuru murriztekoak, batzuk monotipikoak): *Malacorhynchus*, *Salvadorina*, *Cairina*, *Asarcornis*, *Pteronetta*, *Aix*, *Chenonetta*, *Amazonetta*, *Callonetta*, *Lophonetta*, *Speculanas*, *Netta*.
 - "Benetako" ahateetatik (*Anas* generoa) taxonomikoki urrun egon arren, itxuraz antzekoak diren hainbat genero (inguruko hizkuntzetan ere duck, pato, ánade, ànec, Ente, canard, anatra... izenez ezagunak): *Dendrocygnae* azpifamiliako *Thalassornis* eta *Dendrocygna* generoak, eta beste talde batzuetako *Stictonetta*,

Sarkidiornis, *Hymenolaimus* eta *Merganetta* generoak. Baita *Tachyeres* generoa ere, “lurrun-ahateak” (Steamer Duck, pato vapor, ànec vapor, Anatra vaporiera, Schifffente).

- Itsasoko zenbait genero txiki, Mergini tribukoak: ahatebeltzak (*Melanitta* sp.), izotz-ahatea (*Clangula hyemalis*) eta ahate arlekina (*Histrionicus histrionicus*). Inguruko hizkuntzetan genero/espezie hauek izen berezitua dute, hala nola, Scoter, negrón, havelda, arlequín, harelde, orco eta abar.

- **Zertzetak**

- *Spatula* generoko kiderik gehienak, “ahate mokoazabal” diren 4 espezieak izan ezik.
- *Anas* generoko hainbat espezie, zertzeta arruntarekin (*Anas crecca*) filogenetikoki estuki lotutakoak.
- *Sibirionetta* eta *Marmaronetta* genero monotipikoak.

- **Murgilariak**

- *Aythya* eta *Bucephala* generoetako kide guztiak. Inguruko hizkuntzetan ere izen bereziak dituzte (porrón, scaup, pochard, garrot, fuligule, morell, moreta, quattrocchi eta abar).

- **Zerrak**

- Mergini tribuko 3 genero, itsastarrak eta arrantzaleak: *Mergellus*, *Lophodytes* eta *Mergus*.

- **Eiderrak**

- *Somateria* eta *Polysticta* generoak.

- **Malbasiak edo (ahate) buztanzorrotzak**

- Oxyurini tribuko 4 generoek (*Oxyura*, *Biziura*, *Heteronetta* eta *Nomonyx*) buztan zurrun eta zorrotza dute. Taldearen izen zientifikoaren esanahia horixe da, *oxus* (zorrotz) + *oura* (buztan) eta inguruko hizkuntza gehienetan ere izen berezia dute genero hauetako gehienek, besteak beste, malvasía (ES eta CA), Érisma/Hétéronette (FR), Ruderente (DE) edo Gobbo (IT).
- Euskaraz orain arte ‘ahate’ generikoa erabili izan da talde honetako kideak izendatzeko, eta Iribarren zerrendan ere halaxe dago. Hegazti-talde honen itxura eta taxonomia aztertu ondoren, eta talde honetako espezieak izendatzeko argitasuna eta erosotasuna bilatze aldera, uste dugu garrantzitsua dela genero hauetako kideentzat izen generiko berezi bat izatea euskaraz, inguruko hizkuntza guztietan bezala. Izen hori “malbasia” izan liteke (jatorrizko eremuan ematen zaion tokiko izena) edo bestela izen zientifikotik abiatuta ‘ahate buztanzorrotz’ izendatzea. Halaxe jaso dugu ondorengo zerrendan proposamen gisara.
- ‘Malbasia’ hitza Grezia aldeko toponimo baten transkripzioa da (Nomembasia). Hizkuntza bakoitzak bere erara (deformazio eta guzti) moldatu du jatorrizko grekerazko izen hori. Erdi Aroko katalanak Malvasia eman zuen, eta hortik gaztelaniara pasa omen zen. Toponimoa izatetik mahats barietate bat izendatzera pasa zen, eta mahats horrekin egindako ardoa izatera ere bai. Espainia hegoaldean, hegazti honen bizilekua, halaxe deitzen diote bertakoek *Oxyura leucocephala* hegaztiari. Euskaraz, bitan eman izan da malbasia (forma horretan) literaturaren itzulpenetan.

Anseriformeen euskarazko izenen zerrenda

Hona hemen munduko 178 anseriforme espezieen zerrenda, hurrenkera taxonomikoan eta euskarazko izen arruntarekin. Funtsean, "Munduko hegaztien izendegia" (Iribar et al., 2001) lanean azaltzen diren izen berberak dira, hau da, Euskal Batzorde Ornitologikoak Iribarrek proposatutako zerrenda bere horretan onartu du ia bere osotasunean.

Hala ere, 2001az geroztik hainbat aldaketa taxonomiko gertatu dira, batez ere azterketa genetikoaren ondorioz (espezie berriak splitatu dira, kokapen taxonomikoa aldatu kasu batzuetan, genero berriak sortu...) eta beheko zerrenda honetan taxonomia eguneratua aukezten dugu.

Gainera, kasu gutxi batzuetan, batez ere taxonomia berri horren ondorioz, izen batzuk sortu edo egokitu behar izan ditugu. Aldatu ditugun izen gutxi horietan "*Animalien euskarazko izenak finkatzeko oinarritzko irizpideak*" dokumentuan zehazten diren jarraibideak jarraitu ditugu uneoro. Iribarren 2001eko zerrendan aldatu ditugun izenen kasuan iruzkin bat gehitu dugu aldaketa horien zergatiak eta xehetasunak azalduz.

Anhimidae familia

- *Anhima cornuta*: oihulari adardun
- *Chauna chavaria*: txabaria oihulari
- *Chauna torquata*: oihulari lepokodun

Anseranatidae familia

- *Anseranas semipalmata*: mika-antzara

Anatidae familia

- *Dendrocygna viduata*: zuhaitz-ahate musuzuri
- *Dendrocygna autumnalis*: zuhaitz-ahate mokogorri
- *Dendrocygna guttata*: zuhaitz-atate pikart
- *Dendrocygna arborea*: zuhaitz-ahate mokobeltz
- *Dendrocygna bicolor*: zuhaitz-ahate kolorebiko (Iribarrek "kolore biko" zekarren; zuzendu egin dugu eta arauetara egokitu)
- *Dendrocygna eytoni*: Eyton zuhaitz-ahate
- *Dendrocygna arcuata*: zuhaitz-ahate alderrai
- *Dendrocygna javanica*: zuhaitz-ahate javatar
- *Thalassornis leuconotus*: ahate bizkarzuri
- *Cereopsis novaehollandiae*: antzara hauskara
- *Branta bernicla*: branta musubeltz
- *Branta ruficollis*: branta lepagorri
- *Branta sandvicensis*: nene branta
- *Branta canadensis*: branta kanadar handi (espezie hau splitatu egin da, bitan zatituta, *Branta canadensis* eta *Branta hutchinsii*; izenak egokitu ditugu inguruko hizkuntza nagusien antzera)

- *Branta hutchinsii*: branta kanadar txiki (espezie berria, Iribarren zerrendan ez da ageri)
- *Branta leucopsis*: branta musuzuri
- *Anser indicus*: antzara indiar
- *Anser canagicus*: antzara enperadore ('enperadore' edo 'errege' bezalako espezifikatzaileak ez dira gomendagarriak, baina bere horretan utzi dugu)
- *Anser rossii*: Ross antzara
- *Anser caerulescens*: elur-antzara
- *Anser anser*: antzara hankagorritzta
- *Anser cygnoides*: beltxarga-antzara
- *Anser brachyrhynchus*: antzara mokolabur
- *Anser fabalis*: taigako antzara hankahori (espezie hau splitatu egin da, *Anser fabalis* eta *Anser serrirostris*; izenak egokitu ditugu inguruko hizkuntza nagusien antzera)
- *Anser serrirostris*: tundrako antzara hankahori (espezie berria, Iribarren zerrendan ez da ageri)
- *Anser albifrons*: antzara muturzuri
- *Anser erythropus*: antzara nano
- *Coscoroba coscoroba*: koskoroba beltxarga
- *Cygnus atratus*: beltxarga beltz
- *Cygnus melancoryphus*: beltxarga lepabeltz
- *Cygnus olor*: beltxarga arrunt
- *Cygnus buccinator*: beltxarga tronpetari
- *Cygnus columbianus*: beltxarga txistulari
- *Cygnus cygnus*: beltxarga oihulari
- *Stictonetta naevosa*: ahate nakandun
- *Hymenolaimus malacorhynchus*: ahate urdin
- *Tachyeres patachonicus*: lurrun-ahate hegalaria
- *Tachyeres pteneres*: Magallaesko lurrun-ahate
- *Tachyeres brachypterus*: Malvinetako lurrun-ahate
- *Tachyeres leucocephalus*: lurrun-ahate buruzuri
- *Merganetta armata*: uholde-ahate
- *Plectropterus gambensis*: antzara ezpoidun (Iribarren zerrendan "esproindun" azaltzen zen eta zuzendu egin dugu)
- *Sarkidiornis sylvicola*: ahate gandordun amerikar (espezie hau splitatu egin da, bitan zatituta, *Sarkidiornis sylvicola* eta *Sarkidiornis melanotos*; izenak egokitu ditugu inguruko hizkuntza nagusien antzera)
- *Sarkidiornis melanotos*: ahate gandordun afrikar (espezie berria, Iribarren zerrendan ez da ageri)
- *Cyanochen cyanoptera*: antzara hegaluridin
- *Alopochen aegyptiaca*: antzara egiptoar
- *Alopochen mauritiana*: Maurizioko antzara (desagertutako espeziea; Iribarren zerrendan ez da ageri eta izena proposatu dugu)
- *Alopochen kervazoi*: Reuniongo antzara (desagertutako espeziea; Iribarren zerrendan ez da ageri eta izena proposatu dugu)
- *Neochen jubata*: Orinokoko antzara
- *Chloephaga melanoptera*: antzara andetar
- *Chloephaga picta*: Magallaesko antzara

- *Chloephaga hybrida*: itsas antzara
- *Chloephaga poliocephala*: antzara burugris
- *Chloephaga rubidiceps*: antzara burugorri
- *Radjah radjah*: raja paita (Iribarrek *Tadorna radjah* dakar)
- *Tadorna tadorna*: paita arrunt
- *Tadorna ferruginea*: paita gorrizta
- *Tadorna cana*: paita hegoafrikar
- *Tadorna tadornoides*: paita australiar
- *Tadorna variegata*: paita maori (Iribarren zerrendan “paradisuko paita” azaltzen da, ingelesaren kalkoa; ez zaigu batere deskriptiboa iruditzen eta “paita maori” izendatzea proposatzen dugu, gaztelaniaren eta katalanaren bidetik, forma argi eta erabilgarriagoa)
- *Tadorna cristata*: paita gandordun (seguru asko desagertuta; Iribarren zerrendan ez da ageri eta izena proposatu dugu)
- *Malacorhynchus membranaceus*: ahate belarriarrosa
- *Salvadorina waigiensis*: Salvadori ahate (Iribarren zerrendan *Anas waigiensis*)
- *Cairina moschata*: ahate musketadun (Iribarren zerrendan ‘ahate usaintsu’ ageri da, baina beste zerrenda batzuetako ‘ahate musketadun’ hobetsi dugu)
- *Asarcornis scutulata*: ahate hegalzuri (Iribarren zerrendan *Cairina scutulata*; gainera ‘hegazuri’ dakar eta arau nagusietara egokitu dugu, ‘hegalzuri’)
- *Pteronetta hartlaubii*: Hartlaub ahate
- *Aix sponsa*: ahate karolinar
- *Aix galericulata*: mandarin-ahate
- *Chenonetta jubata*: ahate kalpardun
- *Nettapus auritus*: antzaratxo afrikar
- *Nettapus coromandelianus*: Coromandelgo antzaratxo
- *Nettapus pulchellus*: antzaratxo berde
- *Amazonetta brasiliensis*: ahate brasildar
- *Callonetta leucophrys*: ahate lepokodun (Iribarrek ‘antzaratxo lepokoduna’ proposatu zuen, baina egungo filogenian oinarrituta eta espezie honen ezaugarri fisikoak aztertuta, ez dago inolako arrazoirik antzarekin lotzeko eta ‘ahate lepokodun’ proposatu dugu)
- *Lophonetta specularioides*: ahate mottodun (Iribarren zerrendan *Anas specularioides*)
- *Speculanas specularis*: ahate betaurrekodun
- *Sibirionetta formosa*: zertzeta baikaldar
- *Spatula querquedula*: udako zertzeta (Spatula generoko espezie guztiak *Anas* generoan agertzen dira Iribarren zerrendan)
- *Spatula hottentota*: zertzeta hotentota
- *Spatula versicolor*: zertzeta nabar (espezie hau splitatu egin da, bitan zatituta, *Spatula versicolor* eta *Spatula puna*; izenak egokitu ditugu inguruko hizkuntza nagusien antzera)
- *Spatula puna*: puna-zertzeta (espezie berria, Iribarren zerrendan ez da ageri)
- *Spatula platalea*: ahate mokoazabal gorri
- *Spatula cyanoptera*: zertzeta kanelakara
- *Spatula discors*: zertzeta hegalurdin
- *Spatula smithii*: ahate mokoazabal hegoafrikar (Iribarren zerrendan ‘Smith ahate mokoazabal’ ageri da; eponimo eta trinomio aldrebesa saiheste aldera espezifikatzailea aldatzea proposatzen dugu, beste mokoazabal batzuen antzera)
- *Spatula rhynchotis*: ahate mokoazabal australiar

- *Spatula clypeata*: ahate mokozabal zuri
- *Mareca strepera*: ipar-ahate
- *Mareca falcata*: igitai-ahate
- *Mareca penelope*: ahate txistulari eurasiar
- *Mareca sibilatrix*: ahate txistulari txiletar
- *Mareca americana*: ahate txistulari amerikar
- *Mareca marecula*: Amsterdamgo ahate (desagertuta; Iribarren zerrendan ez da ageri eta izena proposatu dugu)
- *Anas sparsa*: ahate beltz
- *Anas undulata*: ahate mokohori
- *Anas melleri*: Meller ahate
- *Anas superciliosa*: ahate bekaindun
- *Anas laysanensis*: Laysango ahate
- *Anas wyvilliana*: ahate hawaiar
- *Anas luzonica*: ahate filipinar
- *Anas poecilorhyncha*: ahate mokopikart indiar (espezie hau splitatu egin da, bitan zatituta, *Anas poecilorhyncha* eta *Anas zonorhyncha*; izenak egokitu ditugu)
- *Anas zonorhyncha*: ahate mokopikart txinar (espezie berria, Iribarren zerrendan ez da ageri)
- *Anas platyrhynchos*: basahate
- *Anas diazi*: ahate mexikar (espezie berria, garai batean basahatearen azpiespeziea; Iribarren zerrendan ez da ageri eta izena proposatu dugu)
- *Anas rubripes*: ahate ilun (espezie hau splitatu egin da, bitan zatituta, *Anas rubripes* eta *Anas fulvigula*; izenak egokitu ditugu inguruko hizkuntza nagusien antzera)
- *Anas fulvigula*: ahate pikart (espezie berria, Iribarren zerrendan ez da ageri)
- *Anas capensis*: Lurmuturreko ahate
- *Anas bahamensis*: ahate bahamar
- *Anas erythrorhyncha*: ahate mokogorri
- *Anas georgica*: ahate ziri-buztan
- *Anas eatoni*: Kerguelengo ahate buztanluze (Iribarren zerrendan ez da ageri eta izena proposatu dugu)
- *Anas acuta*: ahate buztanluze
- *Anas crecca*: zertzeta arrunt
- *Anas carolinensis*: zertzeta amerikar (espezie berria, garai bateko *Anas creccaren* azpiespezie zena; Iribarren zerrendan ez da ageri eta izen berria proposatu dugu)
- *Anas flavirostris*: zertzeta mokohori (espezie hau splitatu egin da, bitan zatituta, *Anas flavirostris* eta *Anas andium*; izenak egokitu ditugu inguruko hizkuntza nagusien antzera)
- *Anas andium*: zertzeta andetar (espezie berria, Iribarren zerrendan ez da ageri)
- *Anas gibberifrons*: Sondako zertzeta (espezie hau hirutan banatu da berriki, *A. gibberifrons*, *A. gracilis* eta *A. albogularis*. Iribarren zerrendan bakarrik lehena ageri da eta talde osoa berrizendatu dugu)
- *Anas albogularis*: Andamango zertzeta (espezie berria, Iribarren zerrendan ez da ageri)
- *Anas gracilis*: zertzeta gris (espezie berria, Iribarren zerrendan ez da ageri)
- *Anas theodori*: Maurizioko zertzeta (desagertuta; Iribarren zerrendan ez da ageri)
- *Anas castanea*: zertzeta gaztaintara
- *Anas bernieri*: Bernier zertzeta

- *Anas chlorotis*: zertzeta arre (espezie hau hirutan banatu da berriki, *A. chlorotis*, *A. aucklandica* eta *A. nesiotis*. Iribarren zerrendan bakarrik azkena ageri da eta talde osoa berrizendatu dugu)
- *Anas aucklandica*: Aucklango zertzeta
- *Anas nesiotis*: Campbellgo zertzeta
- *Marmaronetta angustirostris*: zertzeta marmolaire
- *Rhodonessa caryophyllacea*: ahate buruarrosa (desagertuta; Iribarren zerrendan ez da ageri)
- *Netta rufina*: ahate gorritzta
- *Netta peposaca*: peposaka ahate ('ahate alargun' proposatu zuen Iribarrek, baina gaztelaniazko kalko hutsa da eta "peposaka ahate" hobetsi dugu, irizpide nagusiekin askoz koherenteagoa iruditzen baitzaigu: guranierako bere jatorrizko tokiko izena da, izen zientifikoan ere badator eta beste hizkuntza batzuetan ere horrelaxe izendatzen dute)
- *Netta erythrophthalma*: ahate beltzaran (Iribarren zerrendan 'beltxaran' ageri da; zuzendu egin dugu)
- *Aythya valisineria*: murgilari bizkarzuri
- *Aythya americana*: murgilari burugorri
- *Aythya ferina*: murgilari arrunt
- *Aythya australis*: murgilari australiar
- *Aythya innotata*: murgilari madagaskartar
- *Aythya baeri*: Baer murgilari
- *Aythya nyroca*: murgilari arre
- *Aythya novaeseelandiae*: murgilari zeelandaberritar
- *Aythya collaris*: murgilari lepokodun
- *Aythya fuligula*: murgilari mottodun
- *Aythya marila*: murgilari handi
- *Aythya affinis*: murgilari txiki
- *Polysticta stelleri*: Steller eider
- *Camptorhynchus labradorius*: Labradorko ahate (desagertuta; Iribarren zerrendan ez da ageri)
- *Somateria fischeri*: eider betaurrekodun
- *Somateria spectabilis*: eider errege ('enperadore' edo 'errege' bezalako espezifikatzaileak ez dira gomendagarriak, baina bere horretan utzi dugu)
- *Somateria mollissima*: eider arrunt
- *Histrionicus histrionicus*: ahate arlekin (Iribarren zerrendan marratxoarekin ageri da eta irizpide nagusietara egokitu dugu)
- *Melanitta perspicillata*: ahatebeltz kopetazuri
- *Melanitta fusca*: ahatebeltz hegalzuri europar
- *Melanitta deglandi*: ahatebeltz hegalzuri amerikar
- *Melanitta stejnegeri*: ahatebeltz hegalzuri siberiar
- *Melanitta nigra*: ahatebeltz arrunt (espezie hau splitatu egin da, bitan zatituta, *Melanitta nigra* eta *Melanitta americana*; izenak egokitu ditugu inguruko hizkuntza nagusien antzera)
- *Melanitta americana*: ahatebeltz amerikar (espezie berria, Iribarren zerrendan ez da ageri)

- *Clangula hyemalis*: izotz-ahate
- *Bucephala albeola*: murgilari buruzuri
- *Bucephala clangula*: murgilari urrebegi
- *Bucephala islandica*: murgilari islandiar
- *Mergellus albellus*: zerra txiki (Iribarren zerrendan *Mergus albellus* ageri da)
- *Lophodytes cucullatus*: zerra buruhandi
- *Mergus australis*: zerra zeelandaberritar
- *Mergus octosetaceus*: zerra brasildar
- *Mergus merganser*: zerra handi
- *Mergus serrator*: zerra ertain
- *Mergus squamatus*: zerra txinatar
- *Heteronetta atricapilla*: malbasia burubeltz
- *Nomonyx dominicus*: malbasia mozorrodun (Iribarren zerrendan *Oxyura dominica* ageri da)
- *Oxyura jamaicensis*: malbasia herdoiltsu (espezie hau splitatu egin da, bitan zatituta, *Oxyura jamaicensis* eta *Oxyura ferruginea*; izenak egokitu ditugu inguruko hizkuntza nagusien antzera)
- *Oxyura ferruginea*: malbasia andetar (espezie berria, Iribarren zerrendan ez da ageri)
- *Oxyura vittata*: malbasia argentinar
- *Oxyura australis*: malbasia australiar
- *Oxyura maccoa*: malbasia afrikar (Iribarren zerrendan 'maccoa ahate' ageri da; sortzen den trinomio aldrebesa ikusita, eta izen deskriptiboago bat sortzeko asmoz, 'malbasia afrikar' proposatu dugu)
- *Oxyura leucocephala*: malbasia buruzuri
- *Biziura lobata*: malbasia papardun

Asier Sarasua (Euskal Batzorde Ornitologikoko idazkaria), Aitor Galarza (Bizkaiko Foru Aldundia), Maite Laso (Aranzadi Zientzia Elkarte), Martin Rezola (IVAP Euskal Institutua), Edorta Unamuno (Urdaibai Bird Center), Azaitz Unanue (Txepetxa Hegaztien Zientzia-Eraztunketarako Elkarte), Jon Zubiaur (Kulixka Irteera Ornitologikoak), Aitor Leiza (Itsas Enara Elkarte Ornitologikoa), Miel Mari Elozegi (Nafarroako Gobernua).

Euskal Batzorde Ornitologikoa

